

## **Gorakada noraino?**

*Deia, 1977-07-02.*

Oraintxe datorkit teletipo bidez, telekomunikazioaren azken asmaketa bitartez, berri arrunt bat.

Badakigu ipar-amerikarrak Bonba B-1 dutela; tresna beldurgarri honek orduko 2160 kilometro egiten ditu, baina batez ere, eta sobietarren radarrei ihes egitearren, lurretik 60 metro baino gehiago jaso gabe egiten du bidaje beldurgarri hau. Ba orain, eta hara hemen berria, sobietarrak hasiak dira B-1 bonba aidean, eta heldu aurretik, noski, leher araziko duen tresna ditugu.

Eta ez diegu jaramonik ere egiten. Nor-gehiagoka hau noiz eta nola amaituko den, inork ez daki; eta amaitzen denean, behar bada berandu izango da mundu hontan bizi direnek ezer jakiteko.

Hainbesteko garrantzia du honek gizonarentzat.

Gorakada honek komunikazio bideetako beste fenomeno bat gogora arazten dit.

Orain dela urte batzuk, kaleak zehar, denda-atarietan, autobideetan, anuntzioak begiz erraz ikusten ziren, eta hoiengoen eginbeharra erraz betetzen zuten; gero, lehen margo gabekoak zirenak deigarriago izatearren koloreak hasi ziren jazten, eta neurritz haunditzen, eta norgehiagokako dema hontan ito beharreko estalpen batera iristen hasiak gara.

Hala, itobeharreko gorakada hontan, komunikabideak duten funtzioa eta eragina bera hiltzen hasia da.

Taldeko hizketan ere garrasi bizira igotzen garenean, zintzari bidez-edo leku ixil-huts berera heltzen gara. Eta lasaitzen gara apur bat. Beldur naiz harma-lasterketa hontan ere azken ixil-une hontan amaituko ote duen gizonak.

Baina orduan ez da inor ixil-une baketsu hau entzuteko bizirik geratuko.